

FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jarduerak negozio batek bere balio-proposamena eskaini ahal izateko abian jarri beharko dituen jarduerak dira. Gure enpresak zerbitzua eskaintzeko hainbat jarduera nagusi egin behar ditu; jarduera hauek oso garrantzitsuak dira, eta eskaintzen dugun zerbitzura egokituta daude. Gure kasuan garrantzitsuena plataformaren diseinua, marketing-a (publizitate eta promozio estrategiak)... izango dira. 3 kategorietan sailka daitezke:

- **Produktu baten fabrikazioarekin lotutako jarduerak:**

Gure enpresa aplikazio bat izanik, ez du produkturik fabrikatzen. Aplikazio hau plataforma edo sareko jarduera bat denez, oso garrantzitsua da aplikazioaren know how-a, hau da, ezagutza zaintzea. Hala ere, lehen esan dugun bezala, oso garrantzitsua da enpresaren webgunea eta plataforma osoaren jarduera ere (gero azalduko dugu).



- **Bezeroaren beharrei erantzungo dieten konponbideak inplementatzeko jarduerak:**

Eskaintzen dugun zerbitzuari esker elikagaien munduaren errealitatea ikuskaratu nahi dugu eta hori lortzeko geroago azalduko ditugun hainbat jarduera burutuko ditugu; hala nola, plataformaren diseinua zaintzea edota marketing estrategiak aurrera eramatea. Havekin plataforma egokia izango da eskaini nahi dugun zerbitzurako eta, gainera, aplikazioa ezaguna izango da gure zerbitzuaren beharra duen edozeinek eskuratu dezan.

• Jarduerak Interneten:

→ *Plataformaren diseinua eta erabilgarritasuna:*

Bezeroak gure aplikazioa aurrera egiteko beharrezkoak dira. Ondorioz, bezeroak erakartzeko aplikazioa egoera on batean egon behar da; hau da, diseinua zaindu behar dugu eta baita plataformaren erabilgarritasuna ere.

Laburbilduz, bezeroak erakartzeari dagokionez, 2 jarduera bereizi ditzakegu: alde batetik diseinu erakargarria izango duen aplikazioa sortzea eta bestetik erabiltzeko erraza izan daitekeen plataforma aurrera eramatea.



→ *Marketing estrategiak:*



Hasieran aipatu dugun bezala, gure enpresak dirua lortuko du batik-bat publizitateari eta promozioei esker. Hori dela eta, marketing-arekin erlazioa duten hainbat jarduera burutuko ditugu; hala nola, iragarkiak prestatu.